Hirukiaren koadratura

Zaila izaten da hiruki-formako orube batera egokitzea arkitektura. Zarauzko Irita auzoko haurreskola berriaren proiektuak, ordea, hirukiaren koadratura lortu du

UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

Haurreskola bat izanik, fatxadako eta hesiko aluminiozko xaflek umeen kolore-margoak gogorarazten dituzte. ALEJO BAGUÉ

ZARAUZKO Irita auzoko haurtzaindegia txiki gelditu zen duela hiruzpalau urte. Hori dela eta, toki berria bilatu zitzaion kalearen beste aldean, Iñurritza ibaiaren alboko orube berri batean. Arazotxo bat zegoen, baina, partzela berri horren ditxosozko geometriarekin: hiruki angeluzuzenaren formakoa zen. Eta angelu zorrotzak arkitekturarako oztopo izan dira beti. Edo ia beti, Zarauzko haurreskola berriaren kasuan aldeko akuilu bihurtu baitira.

Proiektuaren banaketa espaziala hirukiaren geometriari moldatu zaio, beraz. Bost gela nagusietatik hiruk kateto luzeenaren norakoa hartu dute, beste batek kateto laburrarena, eta, azkenak hipotenusarena. Zero eta bi urte bitarteko 50 haur bildu behar dituzten gela horiek bolumetrikoki ere nabarmendu dira, erabilera anitzeko gela, tailerra, biltegia eta bulegoa baino garaiera handiagokoak eraikiz. Gainerako espazioan, hau da, gelen eta hirukiaren artekoan, kanpoan jolasteko lorategia antolatu da, eguraldi oneko uneez gozatzeko.

Materialei dagokienez, kolore anitzeko 10 zm-ko aluminiozko xafla bertikalak erabili dira fatxadak osatzeko, baita leiho batzuen aurreko saretak egiteko ere. Halaber, konposizio berdinarekin jarraitu da hesiaren diseinuan, altzairuzko hodi lakatuen bidez. Hortaz, eraikina hainbat kaxatan deskonposatu den arren, materialaren eta kolorearen trataerak halako batasun indartsua eman dio haurreskolaren proiektu osoari. Eta kolore bizi horiek, umeek erabiltzen dituzten margoekin sintonia onean, haur-giro egokia prestatu dute.

Ikuskizunaren arkitektura itsugarritik urrun, bolumen-banaketa eraginkorrak eta materialen erabilera zentzudunak ia-ia zirkuluaren koadratura lortu dute. Hobeki esateko, hirukiaren koadratura.

HAURRESKOLA

Kokapena: Irita, Zarautz.
Arkitektoa: Ignacio Quemada Sáenz-Badillos.
www.ignacioquemada.com
Sustatzailea: Zarauzko Udala.
Data: 2009-2011.
Argazkiak: Alejo Bagué.

Errioxako donostiarra. Ignacio Quemada arkitektoa (Logroño, 1963) Rafael Moneo entzutetsuaren bulegoan zazpi urtez izan zen lanean. Hain zuzen ere, Kursaal jauregiaren obra zela-eta Donostiara lekualdatu ondoren, bertan sortu zuen arkitektura-bulego propioa 1999an. Ibilbide luzea jorratua du, baina akaso 2003an Logroñon eraikitako Juan Alcorta upategiaren proiektu bikainari esker gailendu zen arkitekturaren panoraman.

Eraginkortasuna. Zarauzko haurreskola berria egiteko epe oso laburra zegoen, E Plana delakoaren funtsak baliatu nahi zirelako. Arkitektura-lehiaketa 2009ko abenduan plazaratu zen, eraikinak soilik 12 hilabetetan bukatuta egon behar zuela. Erronka zinez estua eraikuntzaren munduko ohiko erritmo geldorako. Quemadak ondo baino hobeto bete du desafioa. Eraginkortasunez.